

Lizardiri buruz esandakoak: 1961ko omenaldian zezen plaza jendez gainezka

Lizardi antzerki taldea bazen Tolosan: Mirentxu Moraiz, Garikanotarrak... Horien inguruan lagun talde batek 1961eko maiatzean Lizardiren omenaldia antolatu genuen. Baina aurretik Koldo Mitxelenaren hitzaldia antolatu genuen Enpero kaleko Accion Catolica-ren egoitzan. Bibiano Larramendi sendagilea eta biok joan ginen Mitxelenarengana. Zeru Haundin afaltzen ari ginela konturatu ginen hitzaldiaren testua desagertu egin zela. Maiatzeko omenaldian, goizean txistularien alardea izan zen, gero meza, kontzertua udaletxeko arkupetan eta akto akademikoa Iparragirre antzokian. Poesia irakurri zuten partaideen artean Nikolas Ormaetxea *Orix*e zegoen eta saritua izan zen. Publikoki agertu zen azken aldia izan zen, abuztuan hil baitzen Añorgan. Bazkaria herriko toki desberdinetan izan zen, herri osoa girotzearren. Arratsaldean kalejiran joan ginen San Frantzisko kaletik gora zezen plazaraino, dantzari jaialdira. Lapurdi, Nafarroa, Araba eta Bizkaiko ordezkariak izan ziren Tolosakoekin batera. Zezen plaza jendez gainezka zegoen. Geroago Mutitegi eta Urkizu arteko Lizardiren oroitarria berreraiki genuen. 1933ko irailaren 17an jarritakoa gerran bota zuten eta Luis Larrarte harginari enkargatu genion. 1963an Orixeren omenaldia antolatu genuen koadrila berak. Handik urte batzuetara ikastola sortzen hasi ginen eta Lizardi elkarte sortu genuen horretarako.



Lizardiri buruz esandakoak: 1961ko omenaldian zezen plaza jendez gainezka / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Galtzattiki: Galtzaundi aldizkariaren argitalpen berezia*. - Tolosa : Galtzaundi Euskara Taldea. - 2. zenb. (1996 martxoa), 13 orr.